

KAIKO OION!

OYÓN-OIONGO INFORMAZIO-GIDA



Ayuntamiento de
Oyón-Oion



Oyón-Oiongo
Udala



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Lehenengo edizioa: 2021

Egilea:



Entretanto Entretente - Bitartean Jolasean elkarte. Oyón-Oionen kokatutako elkarte honek udalerrian eta Arabako Errioxako Kuadrillan egiten du lan, esku-hartze komunitariotik abiatuta, kulturen arteko bizikidetzarako espazioak sortzeko eta berdintasuna eta migratzaileen harrera bultzatzeko, hainbat ekimenen bidez, hala nola: Emakumeen Ibilaldiak, Oyón-Oiongo Bizikidetzeta Plan, Gizon Taldea, “% 100 Oion” diskoa, Bizilagunak, Arabako Errioxako Zurrumurruen aurkako Estrategia, eta abar.

Informazio gehiago hemen: www.bitarteanjolasean.org

Plaza Nagusia 1, 1. Solairua, Oyón - Oion.

Helbide elektronikoa: entretanto.jolasean@gmail.com

Tel.: 634 408 927.

Finantzaketa:

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Ayuntamiento de
Oyón-Oion



Oyón-Oiongo
Udala

EDUKIA

ONGI ETORRI!	4	
LEHENENGO URRATSAK	5	
OYÓN - OIONEN ERROLDATZEA	5	
ZAINDU ZURE OSASUNA ETA FAMILIARENA	5	
OYÓN - OIONEN ETXEA BILATZEA	7	
ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO BESTE IZAPIDE BATZUK	8	
PRESTAKUNTZA	9	
UMEEN HEZKUNTZA	9	
HELDUEN PRESTAKUNTZA	10	
ENPLEGUA	11	
GIZARTE BALIABIDEAK	13	
DIBERTSITATE FUNTZIONALA	15	
ELKARTEAK	16	
AISIAZ, KULTURAZ ETA KIROLAZ GOZATZEA	19	
KULTUR - ETA AISIA - BALIABIDEAK	19	
KIROL - BALIABIDEAK ETA - ELKARTEAK	20	
GURE INGURUMENA ZAINTZEA	23	
GARRAIO PUBLIKOA	24	
BESTE ZERBITZU INTERESGARRI BATZUK	25	
MAPA	30	

ONGI ETORRI!

Pozten gaitu Oyón-Oion aukeratu izanak bizitzeko, eta gure udalerrira ongi etorria ematea gustatuko litzaiguke, leku kosmopolita baita, gero eta gehiago baitira elkar agurtzeko moduak.

Zure eskuetan Oyón-Oion udalerrian dauden baliabideei buruzko informazio-gida bat duzu udalaren Bizikidetza Planaren ekimenaz egin dena, zuri laguntzeko eta lagun egiteko.

Bizikidetza Planak herritarrek eta teknikariek osatutako hainbat lantalde ditu eta nahi duen edozein pertsonak, erakundek edo kolektibok har dezake parte bertan. Anima zaitetz parte hartzera!

Egin ezazu bat familia handi honekin, eta senti zaitetz aske Harrera Gida honetan aktiboki parte hartzeko. Jar zaitetz gurekin harremanetan zalantzarik edo kezkarik izanez gero, edo gida hobetzeko ekarpenak egin ahal izateko.

Zain gaituzu! Hemen gaituzu!

پیلو
(urdu)

Salut
(frantsesa)

Përshëndetje
(albaniarra)

Hello
(ingeleza)

Kaixo
(euskara)

Hola
(gaztelania)

Buna ziua
(errumaniarra)

Hallo
(alemana)

Olá
(portugesak)

مرحبا
(arabiera)

Здравейте
(bulgariarra)

Привет
(errusiera)

Dzień dobry
(poloniarra)



OYÓN - OIONEN ERROLDATZEA

Udal-errolda udalerrian bizi diren pertsona guztien erregistroa da. Beharrezkoa da osasun laguntza jasotzeko, seme-alabak ikastetxera eramateko eta zure udalerriko Gizarte Zerbitzuetan sarbidea izateko.

Pertsona guzti-guztiek dute bizi diren udalerrian erroldatzeko eskubidea, bai eta egoera irregularrean daudenek ere.



NON?

Oyón - Oiongo Udala.

Plaza Nagusia 5, Oyón - Oion.

Tel.: 945 622 190.

Helbide elektronikoa:

info@ayuntamientodeoyon.com

Ordutegia: 9:00 - 14:00.

ZER BEHAR DUT?

- NANaren, bizileku-txartelaren edo indarreko pasaportearen fotokopia.
- Alokairu-kontratua, jabetza eskritura edo etxebizitzaren jabearen idatzia, bizilekua egiaztatze-ko (jatorrizko dokumentuak).



ZAINDU ZURE OSASUNA ETA FAMILIARENA

Osasun-laguntza bermatuta dute osasun-txartel indibiduala (OTI) duten pertsona guztiek. Eska dezakezu, baldin eta:



- Lanean ari bazara.
- Espainiako nazionalitatea baduzu, Europar Batasuneko herrialderen batekoa, edo Espainiako lurraldean bizitzeko baimena duen atzerritarra bazara.

Arreta jasotzeko, aldeztu aurretik hitzordua eskatu behar da Tel. 945 622 155 edo Internet bidez <https://www.osakidetza.euskadi.eus/inicio/> 24 orduko arreta 945 244 444 (zaintzako medikua) telefono-zenbakian.

Txartelik ez duten pertsonak osasun-laguntza eskatu ahal izango dute honako kasu hauetan:

- Euskadin urtebete baino gehiago erroldatuta daramaten pertsonak.
- Larrialdiak, gaixotasun larriak edo istripuak.
- 18 urtetik beherakoak.
- Emakume haurdunak, haurdunaldian, erditzean eta erditze ostean.

Erantzuna gehienez 3 hilabeteko epean emango da, laguntza behar den bakoitzean erakutsi behar den gutun baten bidez, eta Euskadin bakarrik balio du.

OTI txartela eta osasun-laguntza eskatzea:

ZER BEHAR DUT?

Osasun-laguntza

- Pasaportearen edo AIZren fotokopia.
- Euskal udalerri bateko errolda ziurtagiria.

OTI txartela

- NANaren/AIZren fotokopia.
- Euskal udalerri bateko errolda ziurtagiria.
- GSIInren* agiria, osasun-aseguramendu publikorako eskubidearen aitortza egiaztatzen duena.
- **Adingabeen kasuan:** familia-liburua edo jaiotza inskripzioaren egiaztagiria.



NON?

Osasun-zentroa. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00 - 15:00. | Foru kalea 6, behea ezkerrean Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 155.

* **GSIIn** siglek **Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala** esan nahi dute.

Lezako Ospitalea. Egonaldi ertain eta luzeko ospitalea. 63 ohe eta barne-medikuntzako zerbitzua eta Arabako Errioxako erabiltzaileentzako laguntza-kontsultak: psikiatria, errehabilitazioa, ginekologia, obstetria, emagina, traumatologia eta dermatologia. Analisia atera eta ohiko X izpiak egin daitezke (toraxa, abdomenoa, hezurrak...).

Gasteiz-Logroño errepidea, 59. km, 01309, Leza. | Tel.: 945 006 900 / 945 006 900. | Helbide elektronikoa: hospital.deleza@osakidetza.eus

Farmazia. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00 - 13:45 eta 17:00 - 19:30. larunbatetan, 10:00 - 13:45 | Foru plaza 7 - Gernika hiribidea 4, Oyón - Oion. | Tel.: 945 601 184.

OYÓN - OIONEN ETXEA BILATZEA

Zure etxebizitzarekin lotutako gaietan aholkularitza edo laguntza behar baduzu, jarri harremanetan honako hauekin:

Bizilagun. Zerbitzu publikoa eta doakoa da, eta etxebizitzari buruzko zalantzak argitzen dizkie eta orientabidea eskaintzen die jabeei eta maizterrei, beren eskubide eta betebeharrei buruz. Gainera, komunitate bateko bizilagunen edo jabeen eta maizterren artean bitartekari-lanetan aritzen da, sor daitezkeen gatazkak konpontzeko. Informazio gehiago hemen:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/bizilagun-bitartekaritza-zerbitzua/>

Etxebide (Etxebizitza Publikoaren Euskal Zerbitzua) eta Alokabide (Euskadiko etxebizitza babestuen alokairua). Etxebizitza bat prezio merkeagoan eskuratzeko aukera ematen du, baldintza batzuk betetzen badituzu. Informazio gehiago hemen: <https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-etxebide/eu/> eta <https://www.alokabide.euskadi.eus/hasiera-alokabide/>




ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO BESTE IZAPIDE BATZUK

Garrantzitsua da zure etxebizitzako zerbitzuetan alta ematea edo titulartasuna aldatzea (ura, argia, gasa, Internet, udal-tasa...).

Oyón-Oiongo Udalean ematen dira altak eta bajak eta aldatzen da ur-zerbitzuaren titularra. Informazio gehiago nahi izanez gero eta beste kudeaketa batzuk egiteko, kontsultatu ur-partzuergoan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00 - 15:00. Avda. Diputazioa z.g. Biasteri. | Tel.: 945 622 007. | Tel.: 945 600 833.

- **Butanoa.** Ostiraletan jasotzen eta banatzen dira butano-botilak. Telefonoz deitu behar da lehenago 945 276 100 / 945 254 800 / 945 276 477. Gasolina-zerbitzugunean ere saltzen dira.
- **Gasolina-zerbitzugunea.** Ordutegia: 6:00 - 23:00, astelehenetik igandera. | Logroñorako errepidea 10, Oyón - Oion. | Tel.: 945 622 605.





UMEEN HEZKUNTZA

Gure herrialdean oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa da 6 urtetik 16 urtera arte, eta doakoa da egoiliar guztientzat.



HAURREN MATRIKULAZIOA:

Urtarrila-otsaila inguruan egiten dira eskabideak, nahiz eta ikasturtea irailean hasten den. Udalerrira data horren ondoren iristen diren familientzat berandu matrikulatzeko aukera dago.



NON?

Nemo Haurreskola. Haur Hezkuntzako eskola. (0-2 urte).

Gernika etorbidea 2B, Oyón-Oion. |

Helbide elektronikoa: nemo.oion@haurreskolak.eus | Tel.: 945 601 599.

Ramiro de Maeztu Eskola Publikoa. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. (2-12 urte).

Foru kalea 9, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: 010041aa@hezkuntza.net |

Webgunea: www.ramirodemaetzu.net | Tel.: 945 187 075 / 623 171 130.

Samaniego Biasteri Institutu Publikoa - Oyón-Oiongo ikastegia. DBHko

1. eta 2. mailako ikastegia dago. (12-14 urte).

Antxo Abarka 3, Biasteri. | Helbide elektronikoa: 010349aa@hezkuntza.net |

Webgunea: www.samaniegolaguardia.hezkuntza.net | Tel.: 945 187 076.

San Bizente Ikastola. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH. (0-16 urte).

Foru kalea 5, Oyón-Oion. |

Helbide elektronikoa: idazkaritza@sanbizenteikastola.com |

Webgunea: www.sanbizenteikastola.eus/es | Tel.: 945 601 206.



ZER BEHAR DUT?

Ikastetxean matrikulatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Familia-liburuaren kopia.
- Amaren eta aitaren NANaren edo AIZren kopia.
- Umearen NANaren kopia, halakorik izanez gero.

HELDUEN PRESTAKUNTZA

Euskara eta **gaztelania** dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak. Garrantzitsua da lurraldeko hizkuntza ezagutzea; izan ere, komunikaziorako eta gizarte harremanetarako bide nagusia da. Prestakuntza jasotzeko ez da eskatzen legezko egoeran egotea.



Paulo Freire Helduen Irakaskuntzarako Ikastetxea (HHE). 18 urtetik gorako pertsonentzako ikastetxe publikoa da. Prestakuntza arautua eta ez arautua eskaintzen du: gaztelania ikastea, alfabetatzea, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza (DBH).

Helbide elektronikoa: circulorioja@epapaulofreire.eus ; epa.rioja@gmail.com |
Tel.: 688 617 741 / 688 725 734. |

Webgunea: <https://cepapaulofreire.hezkuntza.net/eu/rioja-alavesa1>



IKA Euskaltegia. Helduek euskara ikasteko ikastaroak eskaintzen ditu. Bekak eta dirulaguntzak daude, baita Oyón-Oiongo Udalaren laguntzak ere. Diputazioa 32, Oyón-Oion. |

Helbide elektronikoa: errioxa@ikaeuskaltegiak.eus | Tel.: 945 601 087. |

Webgunea: <https://errioxa.ikaeuskaltegiak.eus/euskara>



Euskara Sustatzeko Zerbitzua (Arabako Errioxako Kuadrilla). Zerbitzu honen zeregin nagusia euskararen erabilera dinamizatzea eta sustatzea da. Helbide elektronikoa: claguardia.euskara@ayto.araba.eus | Tel.: 945 600 252.





Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. Lanerako orientazio, bitartekotza-eta prestakuntza zerbitzua eskaintzen du. Izen ematea aurrez aurre egin daiteke; horretarako, hitzordua eskatu behar da. Informazio gehiago hemen: <https://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-hasiera/>
Ordutegia: urritik maiatzera, astelehenetik ostiralera, 8:30 - 14:00, eta ekainetik irailera, astelehenetik ostiralera, 8:30 - 13:30.
Giralda Kalea 1, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: oion@lanbide.eus | Tel.: 945 160 600 / 630 305 452.




Enplegu-zentroa. Orientatzaile batek laguntza emango dizu laneratzeko eta enplegua aktiboki bilatzeko zure ibilbidean. Interneterako konexioa duten ordenagailuak ditu.
Plaza Nagusia 1, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: centroempleooion@fondoempleo.net | Tel.: 945 368 680.



Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE). Langabezia-prestazioak eta -subsidioak lortzeko baldintzei buruzko informazio orokorra eta laguntza pertsonalizatua eskaintzen du. Bulegoetara joan aurretik, hitzordua eskatu behar da Internetez egoitza elektronikoaren bidez: <https://sede.sepe.gob.es> edo telefonoz deituta:

- **SEPE Gasteiz-Txagorritxu.**
José Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz. | Tel.: 945 750 898.
- **SEPE Logroño.**
Calvo Sotelo kalea 27-29, Logroño | Tel.: 941 750 598.





Gizarte Segurantzako Institutua. Informazioa eta laguntza eskatzeko, izapideak egiteko eta afiliazioari, diru-bilketari, prestazioei, eta abarri buruzko beste edozein kudeaketa egiteko. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00 – 14:00. Hitzordua eskatu behar da, Internetez www.seg-social.es. edo telefonoz 901 106 570. Wellingtongo dukearen kalea 31, Vitoria-Gasteiz.



Sindikatuak. Langileen elkarteak dira, eta, besteak beste, doako lan-aholkularitzako zerbitzuak ematen dituzte. Oyón - Oionen 4 sindikatu daude, eta horietara jo dezakezu:

- **ELA** sindikatua. Nafarroa etorbidea 31, Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 440.
- **LAB** sindikatua. Kale Nagusia 15A, Oyón-Oion. | Tel.: 945 601 894 / 690 949 912
- **UGT** sindikatua. Nafarroa etorbidea 44, Oyón-Oion. | Tel.:945 150 438.
- **CCOO** sindikatua. Laureano Irribarria kalea 5, Oyón-Oion. | Tel.: 945 131 322.



Arabako Errioxako Kuadrillako Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzua. Arreta ematen die ekintzaileei eta lagundu egiten du enplegua sustatzeko tokiko negozioak eta ekintzak abian jartzen. Helbide elektronikoa: claguardia.alicia@ayto.araba.es | Tel.: 945 600 252.



Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte (UAGA). Nekazaritza-erakunde bat da, eta, besteak beste, nekazaritza-kanpainetarako kontratazio-programa bat garatzen du. Izena emateko lan-poltsa bat dauka. Informazio gehiago hemen: <https://www.uaga.eus/eu/> Gasteizerako errepidea z.g., Biasteri. Kuadrillaren egoitzaren aurrean | Tel. orokorra: 945 600 509 / Tel. (lan-poltsa): 635 704 867.



Gurutze Gorria. Emakumeentzako lan-orientazioa. Bekolarrineta kalea 1, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: empleo.alava@cruzroja.es | Tel.: 945 622 660.





Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Oyón-Oiongo edozein herritar joan daiteke, baldin eta profesional-talde baten laguntza behar badu bere autonomia, integrazioa eta gizarte-ongizatea hobetzen lagun diezaioten. Informazioa eta aurretiko hitzordua: astelehenetik ostiralera, 9:00 - 14:00. Foru eraikina. Foru kalea 6, 1. solairua. Oyón-Oion. | Tel.: 945 601 053.



Arabako Errioxako Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea) familiei, eskolari eta komunitateari zuzendutako programak bultzatzen ditu. Foru eraikina. Foru kalea 6, 1. solairua. Oyón-Oion. Helbide elektronikoa: yolandarioja@yahoo.es | Tel.: 650 471 719.



Gizarteratzeko Zerbitzua, OINEZ Proiektua (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea). Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatzen dituzten pertsonentzat, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen aktibazio pertsonala eta lanekoa sustatzeko. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileen bidez iristen da zerbitzu horretara.



Cáritas Rural.

- **Boluntariotzarako** programa. Herriaren errealitatea ezagutzeko balio du, hautemandako beharrei erantzun antolatua emateko ekintzak sustatzeko. Koordinaziorako, prestakuntzarako eta taldeko hausnarketarako gunea da. Tel.: 678 643 629.
- **Banakako esku-hartzea.** Gizarte-langileak kasu bakoitzaren azterketaren, diagnostikoaren eta balorazioaren bidez egiten die harrera pertsonari, laguntza eskatzen duten pertsonekin batera erantzun egokiak bilatzeko. Gizarte langilearen tel.: 688 711 187 (hitzordua eskatu). Parrokiako lokalak. Done Bikandi kalea 7. Oyón-Oion.



Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua. Helburu nagusia da genero-berdintasuna sustatzea. Helbide elektronikoa: berdintasuna@cuadrillariojaalavesa.com | Tel.: 945 600 252.



Genero-indarkeriaren diren emakumeei arreta Zerbitzua. 24 orduko
Tel.: 112 edo 945 600 955.



Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Tel.: 900 840 111.



Genero indarkerian espezializatutako arreta psikosozial eta sozio-juridikoko zerbitzua (Hegoak Foru Zerbitzua). Tel.: 945 151 015.



Kirol arloan sexu-abusuaren eta -jazarpenaren aurkako arreta-zerbitzua.
Informazio gehiago hemen: <https://www.euskadi.eus/web01-a1kirsexeu/>
Helbide elektronikoa: zuretaldekoakgara@euskadi.eus | Tel.: 688 671 000.



Gurutze Gorria. Premiazko arreta ematen die oinarrizko beharrei, orientazio juridikoa ematen die migratutako pertsoneri eta laguntza-produktuak eskaintzen ditu (makuluak, gurpil-aulkiak...). Gizarte-bazterketan egoteko arriskuan dauden haurrei eskola-laguntza ematea sustatzen du. Bekolarrineta kalea 1, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: oyon@cruzroja.es | Tel.: 945 622 660.



“Mahastietako Ama Birjina” adinekoen egoitza. Arreta osoa, pertsonalizatua eta erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitua eskaintzen du. Halaber, zerbitzu hauek eskaintzen ditu: osasun-laguntza, erizaintza, gizarte-arreta, errehabilitazioa, aisia eta aisialdia, zerbitzu terapeutikoak, soziokulturalak... 30 egoitza-leku ditu eta eguneko arretarako 4. Gernika etorbidea 1, Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 620.





“KIMU” Zentro Okupazionala. Gizarte-baliabide honek dibertsitate funtzionala duten pertsonen gizarte-bizitzan aktiboki parte har dezaten bultzatzen du ekoizpen-jarduerarekin lotutako garapen pertsonaleko programen bidez, enplegua lortzen laguntzeko, ahal denean. Las Norias kalea, z.g., Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 161.



(APDEMA) Adimen-ezintasuna duten pertsonen aldeko Arabako Elkartea. Adimen-ezintasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko bi etxebizitza-baliabide kudeatzen ditu. Baliabide horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen duen itzarote zerrendaren bidez eskura daitezke. Hauek dira bi etxebizitza-baliabideak:

- Euskarriak dituen etxebizitza: 10 pertsonentzat.
Laureano Iribarria kalea 9, 1. solairua, Oyón-Oion.
- Las Losas euskarriak dituen etxebizitza: 4 pertsonentzat.
Gernika etorbidea 4, 1L, Oyón-Oion.

Tel.: 945 258 966.



Indesa Enplegu Zentro Berezia. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta desgaitasuna duten pertsonen enplegu egonkor eta kalitatekoa eskaintzeko sortu zen, horiek erabat laneratu eta gizarteratzeko. Santa Luzia kalea 14. Oyón-Oion. | Tel.: 945 601 842.



ASAFES. Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkartek honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: harrera, aholkularitza, esku hartzeko programa, tailer psikosozialak (astelehen, asteazken eta ostiraletan) eta elkarri laguntzeko hileroko taldeak familiarrentzat eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzat. Aurretiazko hitzordua eskatu behar da arreta jasotzeko xede horretarako egoitzan edo udak instalazioetan.

Tel.: 945 288 648 / 692 052 342 (landa-eremuko taldea).



AFNADAHO. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten pertsonen laguntzen die prebentzioaren eta esku-hartze zuzenaren bidez. Zerbitzu hauek daude: haur eta nerabeentzako psikomotrizitatea, burezurreko eta errain-hezurreko osteopatia, arreta psikologiko eta psikopedagogikoa eta familientzako prestakuntza.
Tel.: 667 247 804.



Alepo S.R.C. Labraza herrixka arabarreko aisialdi- eta kultura-motorra da, honako jarduera hauek bultzatzen baititu: Erdi Aroko festa, kontzertuak, mendi-irteerak, zumba klaseak eta jaietako “txosna”.
Helbide elektronikoa: alepo2016.labraza@gmail.com



San Bizente ikastetxeko guraso-elkartea. Zeregin nagusia da gurasoen eta ikastetxearen arteko lotunea izatea. Berdintasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutako ekintza eta proiektuak sustatzen ditu, eta eskolaz kanpoko jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ditu, besteak beste, Olentzero, Mari Domingi eta San Prudentzioko danborrada.
Foru kalea 5, Oyón-Oion | Helbide elektronikoa: gurasoelkartea@sanbizenteikastola.com | Tel.: 945 601 207.



La Giralda guraso-elkartea. Ramiro de Maeztu HLHI zentroarena da, eta, eskolaz kanpoko jarduerak kudeatzeaz gain, eskola eta haren proiektua hobetzeko jarduketak sustatzen ditu. Gainera, ikasleen eta familien integrazioa, bizikidetzeta eta parte-hartzearen alde egiten du.
Foru kalea 9. Ramiro de Maeztu ikastetxea, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: ampalagiralda@ramirodemaesztu.net | Tel.: 945 601 207.



“Azkenak” KAE elkarte. 80ko hamarkadan sortu zen, eta kuadrillako lagunek osatu zuten. Txoko bat du, sukaldearekin. Oyón-Oiongo jaietan parte hartzen dute, “txorizoa”, “sartaneda” eta “zurrapapotea” prestatzen.
Tel.: 685 720 752.



Rioja Alavesa Classic ibilgailu klasikoen klub-elkartea. Ibilgailu zahar eta klasikoen ezagutza eta gozamina sustatzen du, eta halako ibilgailuak dituzten pertsoneri laguntzen die horiek zaintzen eta horiez gozatzeko. Aholkularitza ere ematen da lege-izapideetan, zergetan, etab. Helbide elektronikoa: clubriojaalavesaclassic@gmail.com | Tel.: 669 259 222.



Gao Lacho Drom ijitoen elkarte. Helburu nagusia da ikasle ijitoen eskola-arrakastaren gorakada azpimarratzea, eta, horretarako, hezkuntzako laguntza- eta babes-ekintzak antolatzen ditu ikasgeletan eta ikasgelaz kanpo. Gainera, laguntza eta orientazioa ematen die familiei, beste ekintza askoren artean. Helbide elektronikoa: rosa@gaolacho.com | Tel.: 646 418 444 / 679 995 615.



“Sta. María” adinekoen elkarte. Mota guztietako aisialdi-, kultura-, prestakuntza- eta komunitate-jarduerak sustatzen ditu, eta hainbat ekitaldi antolatzen ditu: erretiratuen eguna, ate irekiak eta aiton-amonen eguna, besteak beste. Helbide elektronikoa: jubiladosoion@gmail.com



San Prudencio aisialdirako elkarte. Jarduera ludiko eta kulturalak egiteko topagunea da, besteak beste hauek: josteta, eskulanak, pintura, etab. Tel.: 649 288 217.



Urtadar elkarte. Landa-eremuko bizitza sustatzen du, eta antzinako eza-gutza, natura eta ingurumena berreskuratzearekin lotutako jarduerak proposatzen ditu, baita errespetuzko hazkuntza eta pedagogia aktiboa ere. Jarduerak haur, familia eta helduentzat dira. Helbide elektronikoa: urtadarelkartea@gmail.com



OionGo Gazteak elkarte. Nagusiki gazteek kudeatzen dute, eta jarduerak adin guztietako pertsonentzat dira. Urtean zehar hainbat jardura egiten dituzte, besteak beste kontzertuak, magoak, bertsoak, herribazkariak, etab. Sagardotegiaren eguna ere dinamizatzen dute herrian, baita blusaren eguna eta Oyón-Oiongo jaiak ere. Helbide elektronikoa: oiogogazteak@gmail.com



Animaliak zaintzeko “Zaun” elkartea. Animalien eskubideak ezagutarazi, hedatu eta babesten ditu. Horretarako, udalerrian ikastaro eta mintegiak antolatzen ditu, gure animalia eta maskoten hezkuntza eta haiekiko harremana hobetzeko. Halaber, administrazioarekin lan egiten du animalien bizitzaren eta ingurune sozialaren arteko bizikidetzeta-moduak bilatzeko. Helbide elektronikoa: apazaun@gmail.com



Oyón-Oiongo komunitate islamikoa. Oyón-Oiongo komunitate musulmanaren bizikidetzeta, integrazioa eta garapena sustatzen du, eta laguntza ematen die behar duten eta egoera kalteberan dauden pertsona eta familiei.

Meskita Azunaica industrialdean dago kokatuta, 10. pabiloian | Helbide elektronikoa: elbachirziyani02@gmail.com



El Katxi Athletic Club de Bilbao lagunartea. Klubeko zaleak diren haur eta helduentzako futbol-lagunartea da. Bidaiak antolatzen dituzte, San Mames futbol-zelaira joan ahal izateko. Herriko dastaketa herrikoietan parte hartzen dute.

Helbide elektronikoa: transportesansotegui@hotmail.com



Prudentzio Egunsentia Abesbatza (korua). Kultura musikala sustatzea du xede. Herriko hainbat ekitalditan parte hartzen du, adibidez hauetan: Gabonetako kontzertuak, Olentzero eta Gabon-kantak adinekoen egoitzan. Koruak astean behin entseatzen du, 20:00 - 22:00, Hegoalde aretoan. Tel.: 690 667 601.



Oyón-Oiongo ehiza-elkartea. Ehiza xehea sustatzen du (bereziki epe-rra, untzia eta erbia) Oyón-Oionen. Espezie zinegetikoak zaintzen ere parte hartzen du, askak ipini eta betetzen. Bazkide izateko, baldintza hauetakoren bat bete behar da: Oyón-Oionen erroldatuta egotea (epe jakin batean), Oyón-Oionen jaio izana edo bertako herritar baten seme edo alaba izatea.

Tel.: 670 456 057.



AISIAZ, KULTURAZ ETA KIROLAZ GOZATZEA



KULTUR- ETA AISIA-BALIABIDEAK



Udal-liburutegi publikoa. Liburutegirako sarbidea librea eta doakoa da. Mailegu-zerbitzurako beharrezkoa da liburutegiko txartela izatea. Txartel pertsonala eta besterenezina da. Hura eskatzeko, izena emateko fitxa bete eta duela gutxiko argazki bat atxiki beharko da. Foru eraikina. Foru kalea 6, etxabea, Oyón-Oion.



Gazteleku. Hainbat jarduera antolatzen dira topagune horretan, gazteak (Lehen Hezkuntzako 6. mailatik aurrera) errutina eta pasibotasunetik irten daitezten. Aukera hauek daude: futbolina, ping-pong, air hockey, mahai-jokoak. Tailerrak, hitzaldiak eta ibilaldiak ere antolatzen dira. Zerbitzua bi gizarte-hezitzailek dinamizatzen dute. Irekita dago ostiraletan, 17:30 - 20:30. Informazio gehiago Instagramen: [@centrojovenioin](#)



Udal-zinema. Udalerriaren behar soziokulturalak asetzea du xede (zinema, antzerkia, musika, dantza, kontzertuak, konferentziak, topaguneak, etab.). Hura erabili ahal izateko, jarri harremanetan Oyón-Oiongo Udalarekin. Foru kalea 4, Oyón-Oion.



KZgunea. Telezentroen sare publikoa. 16 urtetik gorako pertsonak Interneteko sarbidea dute, eta teknologia berriein lotutako prestakuntza jaso dezakete. Zerbitzua erabili ahal izateko izena eman behar duzu zure udalerriko KZgunean. Ikastaroen informazioa: <https://www.kzgunea.eus/eu/hasiera>
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00 - 13:00.
Foru kalea 4, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: tutor.oion@kzgunea.net | Tel.: 945 062 534.



Museo etnografikoa. Bisitak aukera ematen du udalerriko nekazaritzan, abeltzaintzan eta ofizioetan izan diren aldaketa handiak ezagutzeko. Bisitak aldez aurretik finkatzen dira Oyón-Oiongo Udalarekin. Foru kalea 6, beheko solairua (Foru plazatik) Oyón - Oion.



Irule Kultur Elkartea. “Txistua eta triki” (6 urtetik aurrera) eta “Euskal dantza” (3 urtetik aurrera) bezalako instrumentu eta dantza euskaldunen ikaskuntza sustatzea du helburu. Matrikulak irailean egiten dira eta klaseak urrian hasten dira. KZ Guneren goiko solairuan praktikatzen dugu eta sarrera Udal Zinematik da.

Helbide elektronikoa: irule.oion@gmail.com



“MUSIKASI” musika-eskola. 3 urtetik gorako haurrentzako, gazteenzako eta helduentzako hezkuntza-baliabidea. KIDS programa 3 eta 7 urte arteko haurrentzat, adierazpen musikala garatzeko emozioen bidez, eta 8 urtetik aurrera instrumentu batekin hasteko aukera. Talde txikiak. Informazio gehiago hemen: www.bitarteanjolasean.org/category/musikasi/ Plaza Nagusia 1, 1. solairua, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa:

entretanto.jolasean@gmail.com | Tel.: 634 408 927.



KIROL-BALIABIDEAK ETA -ELKARTEAK



Udal kirol-gimnasioa. Herritarrek erabiltzeko kirol- eta aisialdi-zentroa.

Kirol ikastaro eta -ekitaldiak antolatzen ditu.

Batzar Nagusien kalea 11, Oyón-Oion. | Tel.: 676 459 604 eta 945 601 926

| Helbide elektronikoa: oiondeportivo@gmail.com



Kirol-ekipamendua. Instalazioetan padel- eta tenis-pista bat dago, baita areto futboleko pista bat ere, saskibaloiarekin partekatuta (aurretzako erreserba). Tel.: 945 601 235.

Arroyo I kiroldegia. Pilotalekua (aurretzako erreserba).

Udal-igerilekuak. Udan irekitzen dira. Bazkide egiteko aukera.

Elorri kalea, Oyón-Oion.



Oion Arena futbol-zelaia. Ikusle gisa joan daiteke partiduetara, eta soilik hirugarren mailako taldearen partiduak ordaindu behar dira. Informazio gehiago hemen: www.oyonesa.com/oion-arena

Bidezar kalea 33, Oyón-Oion.



Toki-Alai pilotalekua. San Bizente ikastolaren ondoan dago. Pilota, frontenis eta areto-futbolera erabiltzen da (aurretzako erreserba).

Foru kalea 3, Oyón-Oion.



Koadrilen Parkea. Kirol-pistan futbol- eta saskibaloizelaia daude.



Río Grande parkea. Kirol-eremua du, honako hauekin: futbol- eta saskibaloizelaia, ping pong mahaia, petanken jolas-pista, skateentzako hormigoizko plataforma eta *Skate-Park*.



Oyón-Oiongo petanka-elkartea. Zaletasun bera duten pertsonen talde batek hartzen du parte: petanka da zaletasun hori. Goizez edo arratsaldez biltzen dira, praktikatzeko. Federatuta daude, eta eskualde- eta estatu-mailan antolatzen diren txapelketetan hartzen dute parte.

Tel.: 646 559 805



Arkaitz Mendi Taldea. 60 bazkide inguru ditu, eta mendizaletasunarekin, eskaladarekin eta burdin-bideekin lotutako diziplinak lantzen dituzte. Federatzeko aukerak ematen ditu, mendira joateko materiala uzten du (erraketak, kranpoiak, pioletak...) eta herrian rokodromo bat du, entrenatzeko toki bikaina.

Laureano Iribarria kalea 11, etxabea, Oyón-Oion. | Helbide elektronikoa: arkaitzoion@gmail.com



Oyón-Oiongo “El Espinar” eskubaloi-kluba. Kirol-klubaren xedea da eskubaloia sustatzea. 6 eta 18 urte arteko haurrentzat da batez ere. Arabako Errioxako hainbat herritako jokalaririk daude, baina batez ere Oyón-Oiongoak.

Helbide elektronikoa: clubbalonmanooyon@gmail.com | Tel.: 627 841 441 / 647 522 570.



Marraskilo Negartiak txirrindularitza-kluba. Mendiko eta errepideko bizikleta-jarduerak antolatzen ditu, adin eta maila guztietako pertsonentzat. Villa de Oyón BTT Martxa antolatzen dute, baita asteroko irteerak eta urteko irteera ere.

Helbide elektronikoa: marraskilo.negartiak.t.k@gmail.com | Tel.: 687 421 300.



Oion pilota-kluba. Esku-pilota, pala, zesta-punta eta frontenisa, besteak beste. Edozein adineko jendearentzat (ikasleak eta helduak). Asteroko entrenamenduak txapelketetarako edo aisiarako.

Helbide elektronikoa: oionpilota@hotmail.com



S.D. Oyonesa de fútbol. Futbol-kluba da, eta soilik kirol hori lantzen du. Bost urtetik aurrerako haurrak has daitezke jarduera horretan. Izena ematea eta informazio gehiago hemen: www.oyonesa.com

Bidezar kalea 33 | Helbide elektronikoa: sdoyonesa@gmail.com |

Tel.: 945 622 329 (19:00 - 21:00) / 616 397 191.

GURE INGURUMENA ZAINTEA



Keinu txikiak, beste pertsona batzuen keinuekin batera, aldaketa handiak ekar ditzakete. Hemen dituzu gomendio batzuk:

- **Murritz** zure kontsumoa eta joan **bigarren eskuko** azokara.
- **Birziklatu; horretarako, berezi hondakinak**, eta bota zaborra dagokion edukiontzian:
 - Edukiontzi urdina (papera eta kartoia).
 - Edukiontzi horia (latak, poteak, brikak eta poliespana).
 - Iglu berdea (beira, beirazko botilak...).
 - Berrerabiltzeko edukiontzia (arropa, oinetakoak, jostailuak, etxetresna elektriko txikiak...).



Tamaina handiko hondakinen bilketa. Tamaina handiko hondakinak etxebizitzetako altzari handiak dira: somierrak, koltxoiak, ateak, leihoak, armairuak edo aulkiak, besteak beste. Bilketa hilabete bakoitzeko hirugarren ostegunean egiten da, eta alde zuzenetik abisatu behar da. Abisatzeko azken eguna aurreko astelehena izango da, Arabako Errioxako Kuadrillari deituta, Tel. zenbaki honetara: 945 600 252.



Oyón-Oiongo garbigunea. Etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko zentroa, haiek berrerabili edo birziklatzeko. Joan baino lehen, bilatu onartzen ez diren hondakinei eta kopuruen mugei buruzko informazioa. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00 - 14:00. (azken sarrera 13:30ean) / 15:00 - 18:00 (azken sarrera 17:30ean) eta larunbatetan: 9:00 - 14:00. (azken sarrera 13:30ean).

Moredarako errepidea, hilerriaren aurrean | garbigunedeoion@gmail.com
| Tel.: 945 214 383.

Informazio gehiago hemen: www.inforecikla.eus/eu webgunean edo **InfoRecikla** aplikazioan, hondakinak botatzeko gertuen dagoen tokia ezagutzeko.

GARRAIO PUBLIKOA



Autobus-geltokia. Estibaliz kalea, Oyón-Oion. | Tel.: 945 181 818.

Hauek dira eskuragarri dauden lineak:


- **8. linea:** Logroño - Oyón - Oion - Biasteri.
- **9. linea:** Logroño - Vitoria/Gasteiz.
- **22. linea:** Oyón-Oion - Biasteri - Leza ospitalea. Beti egin behar da aurretiazko erreserba (aurreko eguneko 20:00ak arte) telefono-zenbaki honetan: 945 182 060 edo webgunean: www.araba.eus/alavabus/

Informazio gehiago hemen: **ALAVABUS aplikazioa.**


Eskudirutan edo **BAT txartela**rekin (merkeago) ordain daiteke, autobusean bertan. BAT txartelak 3 euroko prezioa du, eta Oyón-Oiongo udaletxean erosten da.

- **BAT NFC aplikazioak** aukera ematen du BAT txartela kontsultatu eta kargatzeko mugikorraren bidez. BAT txartela honako hauetan ere karga daiteke: Caja Vital - Kutxabank bankuan (Diputazio etorbidea 4, Oyón-Oion) eta Logroñoko autobus-geltokian.

Taxi-zerbitzua. Tel.: 639 703 319.



BESTE ZERBITZU INTERESGARRI BATZUK



Etxeko arreta eta larrialdiak. Tel.: 945 244 444.



Larrialdietarako telefonoa: 112. Edozein motatako arrisku-egoera pertsonal edo kolektibotarako (lapurretak, suteak...).



Ertzaintza - Suhiltzaileak - Intoxikazioak. Tel.: 945 600 955.



Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla. Astelehenetik ostiralera, 9:00 - 14:00. Informazio gehiago hemen: <http://arabakoerrioxa.eus/eu-es/>
Gasteizerako errepidea 2, Guardia. | Helbide elektronikoa: info@cudrillariojaalavesa.com | Tel.: 945 600 252.



Bake-epailea. Ordutegia: ostegunetan, 9:00 - 11:00 | Foru kalea 6, 1, Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 098.



Notarioa. Ordutegia: asteazken eta ostiraletan, 9:30. | Foru kalea 6, 1, Oyón-Oion. | Tel.: 945 600 162.



Foru Ogasunaren bulegoa Arabako Errioxan. Ordutegia: 8:15 - 14:30. Aurretiazko hitzordua behar da. | (Samaniego jauregia) San Juan plaza, Guardia | Helbide elektronikoa: ohaciendalaguardia@araba.eus | Tel.: 945 181 555 / 945 600 135.




Arabako Errioxako kontsumitzaileen arreta-zerbitzua. Arabako Errioxako Kuadrillak kudeatzen du. Informazio gehiago hemen: <https://www.kontsumobide.euskadi.eus/hasiera/>
Helbide elektronikoa: claguardia.vidal@ayto.araba.eus | Tel.: 945 600 252.



Posta-zerbitzua. Posta-bulegoa dago. Mota guztietako posta-zerbitzuak, dirua bidaltzeko aukera, dibisak aldatzeko aukera, ordainagiriaren ordainketa, administrazioen aurrean dokumentu digitalak aurkezteko aukera, eta abar eskaintzen ditu, besteak beste. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30 - 14:30. Informazio gehiago hemen: www.correos.es
Santa Luzia kalea 13-15, etxabea, Oyón-Oion. | Tel.: 945 601 401. | Helbide elektronikoa: oyon.alava@correos.com



Udalaren Whatsapp zerbitzua. Doako zerbitzu horretan alta emateko, 628 650 376 zenbakia gehitu behar da kontaktu gisa. Ondoren, bidali  Whatsappeko mezu bat zenbaki horretara, izen-abizenak eta NAN adierazita.



Eusko Jaurlaritzaren Atzeritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa. Helbide elektronikoa: asesoria@euskadi.eus | Tel.: 900 840 890.



Jabetza-erregistroa. San Juan plaza 2, Biasteri. | Tel.: 945 600 072.




Erregistro zibila. Ordutegia: ostegunetan, 17:00 - 19:00. | Foru kalea 6, 1, Oyón-Oion. | Tel.: 945 622 098.




Zuzenean (herritarren arreta-zerbitzua eta Euskadiko Administrazio Nagusiarekin lotutako kontsultak). Aurretiatzko hitzordua eta informazioa: www.euskadi.eus/zuzenean-aurrez-aurreko-arreta/web01-a2zuzen/eu | Tel.: 012 | Telegram: 688 671 234.

OHARRAK







Oyón - Oion

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

Udaletxea - Ayuntamiento

Foru Eraikina - Edificio Fueros

• Etnografi museoa - Museo etnográfico

• Liburutegi - Biblioteca

• Epaitegia - Juzgado

• Osasun Zentroa - Centro de Salud

• Gizarte Zerbitzuak - Servicios sociales (Gizarte-langilea - trabajador/a social)

• Notarioa - Notaria

• EPA (Helduen hezkuntza eskola - Escuela de educación de adultos)

Ikastola San Bizente

Ramiro de Maeztu ikastetxea - colegio

Haurtzaindegia - Guardería

Lanbide

12

17

6

10

1

15

8

4

5

7

2

11

3

9

14

BUS

A

+

7 Gazteleku

8 Asociación Personas Mayores - Bazterra Aretoa-Sala Bazterra

9 Adinekoen Egoitza - Residencia Personas Mayores

10 Udaletxe zaharra - Antiguo Ayuntamiento

- Enplegu Zentroa - Centro de Empleo
- Bitartean Jolasean Elkartea - Asociación Entretanto Entretente
- Musika Eskola Musikasi - Escuela de Música Musikasi

11 Kultur Etxea - Casa de cultura (Zinema - Cine, KZ Gune, Irule Elkartea - Asociación)

12 Euskaltegi

13 Kimu Zentro okupazionala - Centro ocupacional

14 Gurutze Gorria - Cruz Roja

15 Jasokundeko Andra Mariaren eliza - Iglesia de Santa María de la Asunción

16 Postetxea - Correos

17 Caritas Rural - Parrokiako lokalak - Locales parroquiales

18 Al Hidaya Mezquita - Mezquita Al Hidaya

Parkea - Parque

Igerilekua - Piscina

Farmazia - Farmacia

Autobusaren geltokia - Parada autobús

Gasolindegia - Gasolinera

16

13

18



**KAIKO
OION!**